




Ihesi

TESTUA: JON ARTANO
ARGAZIAK: INES URRUTIA

Hernani (Gipuzkoa)

101 ate 101 atari

Azeri dantzaren bidean

110 ate eta 110 atari. 110 aukera axeri dantzako sokamutilak ezkutatze eta agertze. Ehizakia oharkabean harrapatze hormako txuloetan sartu-irtenean dabilen zirauna bezala. 110, eta denak diferenteak. Haritz eta gaztain egurrezko Erdi Erocko atetzarrak zein altzairuzko errezelaz babestutakoak; azulejatu ederreko bebarruak gordetzen dituztenak nahiz pintura ezkatat zintzilik dituen ezkaratzen mugak. 110 sarrailezulo ditu Hernaniko Kale Nagusiak.

"Katedral batek adina balio duen karrika"

"Hernanik ez dauka monumenturik baina paisaia miresgarria dauka eta katedral batek adina balio duen karrika. Hernaniko karrika nagusia" idatzi zuen Victor Hugok. Guk esaldi hori zukututa atera dugu Kale Nagusiak utzi digun inpresioa: Hernaniko Kale Nagusikoa paisaia miresgarria da.

Gudarien enparantzan hasi, Kardaberaz kalean behera egin eta Kale Nagusian gora Gudarien enparantzara. Hori da Hernaniko azeri dantzak egiten duen bidea, eta gure proposamena. Bistan denez gaurkoa ez da kirolerako gonbitea; pasiera honetan ez duzue izerdirik botako non eta ez duzuen zapatu arratsen batean egiten.

Alde zaharreko enkantua

Goizeko lanbro-langarrak disdiratsu eta garbi utzi ditu kaleak. Haurrak etxe atarietan egiten dute juntadizoa bakarrik ez joateko eskolara. Amonak bistaratu dira ezkaratzetatik kapazua hartuta. Profesional presatiak ere badabiltza kalean barrena. Dena oreka eta harmonia iruditu zaigu lipar batez. Gure debilidadea dira alde zaharretako kaleak.

Idi orgaren karrankan Hugok di-da aletzen du Hernaniko ondarea: "eliza arrunt bat –Pompadour estiloko portiko aberatsa duen arren– eta udaletxe ezdeus bat". Gudarien enparantzan hasiko dugu txangoa. Pompadour estiloaren ezaugarria denentz ez dakigu baina atentzioa eman digu portikoaren goialdean dagoen aurpegiak, "haserretutako kalabaza" dela ebatzi du argazkila-

Atentzioa eman digu elizako portikoaren goialdean dagoen aurpegiak, "haserretutako kalabaza" dela ebatzi du argazkilariak

riak. Udaletxea ez zaigu 'ezdeusa' iruditu. Ez dugu idazle frantsesak ikusitako eraikin bera ikusten. Izan ere herriko etxe zaharra egun batean lur jota gelditu zen. "Zori gaiztozko gerra zibilla sortu zalako meriyo"

jazo zen hori herriko seme Txirritak esango lukeen moduan. 1875ean, bigarren karlistadan, lehergaien biltegi bihurtu zuten udaletxea eta karlistek Santiomenditik botatako granada batek arkuak ez beste guztia eraitsi zuen.

Kardaberaz kalean behera taberna mordoa eta etxe dotore batzuk ere ikusi ditugu. Ederrenetakoa Portolondo etxea, Jentildorre ere esaten zaiona.



Rioja Kale Nagusian dago eta Kale Nagusia Riojan. Argazkian Victor Goikoetxearen horma-pintura, Rioja tabernan.



Azeri dantza, dantza baino gehiago

Goizeko 9:00etan, txistularien *Iriyarena* doinuaz sokamuturra amaitzean, maskurien danbatekoak hasten dira Hernanin. Azeri dantza hernaniarren artean festa maitatua da oso. Kolpez kolpe eta kalez kale sortzen duen zirrara barne-barnean sentitzen dute askok. 14-16 lagun biltzen dira soka bati helduta eta ibilaldi korapilatsua egiten dute herri-kaskoan dauden pasabide, txoko eta zirrikitu ezkutuetan barrena. Ibilaldi osoa txistularien doinuean egiten da; aspalditik datorren doinu berezia da azeri dantzakoa, haur melodia bat agian, Aita Donostiak jaso zuen bere bildumarako.

Dantzariak desagertu eta ustekabeen agertzen dira lekurik harrigarrienetan —berdin balkoi batean edo tabernako sukalde barruan—. Orduan, txistulariek doinua bizkortu eta maskuriak "dantzan" hasten dira, *molto allegro*, parean dagoenaren bizkarra gorritu arte. Sekulako jendetza biltzen da kale bueltak irauten duen bi ordu inguruan. Amaieran, borobil bat egin eta dantzariak fandangoaren azken notarekin maskuria lehertzen dute gainera salto eginda, txalo artean.

FRANKISMOAK DEBEKATURIKO JAIA

Festa zaharra da Hernanikoa; jatorria, Andoainen eta Adunan oraindik mantentzen den azeri dantzan omen du.

Larramendik hitz egin zuen bere *Corografían* honen inguruan, eta Humboldt bidaiari alemanak ere ikusi zuen. Kronika guztiek jolas-dantza barregarri gisa azaltzen digute azeri dantza. Baina Hernanikoa, dantza izatetik festa izatera pasa da.

Mende hasieran Inauterietan ospatzen zen, baina frankismoak inauteriak debekatzearekin batera amaitu zen maskurien dantza. Lauzpabost

urte ondoren, San Joanetan ekin zioten berriro ohiturari, bigarren eta hirugarren egunean (ekainak 25 eta 26). Orduz geroztik San Joanetan du azeri dantzak hitzordu nagusiena, urte gutxi baitira Inauterietarako ere berreskuratu dutela.

AZERIA: ZIRIKATZAILE BERRIA

Hamarkada batzuetatik hona asko aldatu dira ohiturak eta arauak. Lehenago jendeak ihes egiten zion sokari helduta zihoazen mutil morroskoei, gaur egun ondoko lagunaren bizkarrari heltzen diote, egurra jaso dezan. Bestalde, duela bi hamarkada inguru, azeriz jantzitako dantzaria gehitu zitzaion taldeari. Azeria bere kasa dabil, ingurukoak zirikatzen eta ibilbidean zehar dantza eginaz txistuaren airean. Azken urteetan hirugarren azeri dantza saio bat egin izan da, kasu honetan neska-mutil talde misto batek osatua, genero berdintasunaren aldeko urrats txiki bat, baina ez erabatekoa.

Aste gutxi barru izango dira San Joanak eta maskurien lastana probatuko dute askoz berriz ere. Aukera paregabea da, gaueko parrandaz harantzago dagoen biharamuneko Hernani ezagutzeko.

Urko Apaolaza





Bizi-poza ematen du baserritar jendea baratzeke jeneroa saltzen ikustek. Zenbait agintari berdura eta fruten kolore-lurrinak kaletik ezkutatzeko ahaleginean ari da aspaldian. Hernanin egunero-egunero dute *Moko* baserrikoek ekarritakoa erosteko aukera udaletxeko arkupetan. Herrian estimazio handia dute jaki horiek.

"Kantabriya da ibai eder bat / guziya arraiz betia, / eta geiena jenero fiñak, / bastuak banakak tia", Txirritak maite zituen arrainak eta gaurko hernaniarrak ere moko finak direla antz ematen da Kale Nagusiko arrandegian muesturan izaten dituzten aleei erreparatuta.

Ziaboga eta bigarren luzea

Zinkoenean buelta hartu dugu, automobilerik txopa erakutsi eta Kale Nagusian goiti abiatu gara. Victor Hugoren uharan: "Dena erliebezko armarriek, bitxi-balkoiek, atari jaungoenekoen apaindua, egun almenen ordeztu amatxi-loreak dauzkan borta hondatu batek itxia, liburu bikaina dugu non irakurri, orrialdez orrialde, etxez-etxe, lau mendetako arkitektura" *Ernani* antzezlanaren egileari Hernanin gehien gustatu zitzaiona Kale Nagusia izan zen.

Kontuan izanda Pasaian laketu zen idazleak hitzok 1843an jarri zituela, esan dezakegu, gutxienez, bost mendetako arkitektura eta historia irakurtzeko liburua dela Kale Nagusia. Eta irakurketa modu askotara egin daiteke; egin daiteke poliki, detaile txikienetan plazer hartuz; eta

egin daiteke jauzika, han-hemenka geldituz. Irakurketa gidatua ere egin daiteke, eraikin 'garrantzitsuenek' izena eta garaia zizelkatua baitute atarian, lurrean jarritako kolore gorri-kadun harlauzatan. Guri atentzioa eman digu Torretxeak, aurrealde belbelta duelako eta leihoetatik isekitako arropen koloreak nabarmendu egiten direlako haizearen kulunkan.

Eskuinean,
Kale
Nagusian
aurkitutako
pitxia.
Publizitatea
ondare
bihurtua.



Rioja eta abiapuntu den helmuga

Rioja Kale Nagusian dago eta Kale Nagusia Riojan. Kale Nagusitik Rioja tabernara sartu eta harunzkaleraino joanez gero Kale Nagusia izango duzu parez-pare. Vicor Goikoetxeak egindako horma-pintura da. Kale Nagusira parez-pare irekitako leihoa ertzean *Hernaniko Kronika* egunkariaren alea duela.

Ostatuan ohiko bezeroak eta tabernariak zeingehiagoka dialektikoan ari dira, elkarriradar-joka. Herriko Errugbi taldea dute hizpide. Denboraldi bikaina eginagatik ezin izan dute balentria burutu; maila gorenera igotzeko kanporaketan El Monte Ciencias Sevillako taldea gailendu zaie.

Rioja tabernatik berehalaxe dago Gudarien plaza. Ibilbidea hasieran da berriz, Hernani guztia dugulako oraindik ezagutzeko. ■

